

www.hoaia.com
W u !



Abenduaren 10ean,
aurkezpen ekitaldia

200dik gora etxebizitza
hutsik daude

ALKARTASUNA
BASERKITARREN KOOPERATIBA

Naturalki

Janari ekologikoak
Piperminetarako ospina
Talotarako artirina
Palxaranelarako anisa
Herriko babarruna
Baba txiki beltza eta zuria
Baratzarako landareak
Herriko sagardo aukera
Baratza eta loretako liburuak
Konpostagailuak
Zabatoak
Zakur jana eta katu jana aukera
Egur ikatza
Saski, lepotar, zare, xexto...
Ukenduak
Txorientzako kabiak
Lanerako erropa eta oinetakoak
Eta abar...


Ugarte Industrialdea, 12 Tel: 943 36 11 14
alkartasuna@usurbil.com

LIZARDI LIBYRYDENDA



**Liburuak, aldizkariak, musika
Opariak, eskolako materiala
Enkuadernazioak**

Etxebeste kalea, 1
Tlf: 943 36 11 15



Telefonode txobatsoiliketaxean jasokoduzu
aukeratutako Kilometrotarra. Ez dagodudarik,
primerangeratuko zara aurtengo Gabonetan!!!



943712412

135 €



68 €



kilometrotarra

Txirrikitutik

Txirrindularitza oso txertatua egon da gure herrian. Urteetan zehar hainbat eta hainbat gazte bizikletarako zaletasuna ederki erakutsi dute, herrian talde indartsu bat osatzeraino. Gazte horietako asko bidean geratu diren arren, beste batzuk aurrera jarraitu dute lehen mailako txirrindularitzaren puntaraino iritsiz. Gaur egun ordea, herrian ez dago txirrindulari talderik, baina zaletasunaren grinak oraindik herri-arraren artean jarraitzen du.

Irudian ikusten duzuen argazki honetan, Julen Zuazabeitiak (Julian txiki bezala ezagutua) txirrindularitza lasterketa honi argazkia ateratzeko tarte hartu zuen. Bertan, herriko Kale Nagusitik, Salbatore eliza eta Sarobe jauregiaren parean, hainbat

txirrindulari lasterka pasatzen ikusten dira, herritarrek adi-adi begira eta oihiak botatzen dituzten bitartean. Ez dakigu zehazki zer lasterketa den baina garbi dago herritarrek ikusmin handiarekin jarraitzen dutela lasterketa. Bitxikeri moduan, ikusi ezker aldean dagoen guardia zibila jendearen artean, trikornioa eta guzti lasterketari begira.

Argazkian dauden beste ezaugarriak erreparatzen badiogu, elizaren pasadizora sartzeko gaur egun dagoen ezker aldeko sarrera itxirik dagoela ikusiko duzue. Bestalde, Eguzkitzaldeko etxe berriak eta Kalezarrera doan bide berria falta dira.



EGILEA: JULEN ZUAZABEITIA (JULIAN TXIKI)

1960-1970 HAMARKADA INGURUA,

KALEBERRI JABETZA: NOAUA! K.E.

Zalao Arnaiz Ibarguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteke egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea: *Noaua!* Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieto, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

200 etxebizitza baino gehiago daude hutsik.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE	4. URR.
“SORTU ZABOR GUTXIAGO” KANPAINA	5. URR.
BERRIEMAILEAK KALEJIRAN	6. URR.
BASERRIEN LIBURUA BEGIBISTAN	10. URR.
ETXEBIZITZA HUTS UGARI DAGO	12. URR.
BATASUNAKO KIDEEKIN SOLASEAN	14. URR.
ZUMARTEKOAK, ALEMANIARA BIDEAN	16. URR.
ARALARTIK NOAUA! TXIKIRA	18. URR.
PUBLIERREPORTAJEA	22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



AITOR LANDALUZE

Durangoko koadrila

Aurten ere etorri dira Durangoko koadrilakoak, ez dira sekulan denak batera etorri baina urteak pasata, denak egon direla iruditzen zait. Urtero plan berdina dute, gogozan Durangon elkartu eta azokara bixita egin ondoren bokata bat Goienkalen, kafea eta geltokira Usurbilera ekartzen dituen tren hartzera. Usurbilgo tren geltokian taxia hartu eta Bentazikineko sagardotegira etortzen dira.

Aurten, Mark Legasse eta Agustin Xahorekin, bi hauek urtero etortzen dira, Lizardi, Aresti; honek Oteiza gonbidatu du eta betiko apaiz koadrila; aurten Axular, Mogel, Etxepare eta Txomin Agirrek osatuta. Gainera lau hauek ez ziren iaz Durangora joan eta Azoka Berria ikusi nahi zuten Leizarragari entzundakoa egia ote zen sinistu ezinik. Onartu ez duten arren, hunkitu dira, azken finean elizak baino handiagoak diren edozein egoitzak apaizak adi jarrazten ditu.

Bestetik ia dena urtero lez jarraitu du, bapo jan eta hobeto edan ondoren betiko elkarriketak berpiztu dira. Oteiza eta Aresti Harriaz eta Herriaz ari ziren, bitartean, Markek eta Agustinek ezkerren noraiezko egoerari buruz mintzatu dira. Agustinek ezkerre baratza anitza bezala ikusten zuen, osagai asko elkarren artean egoki josi beharrekoak, baratza emankor eta zabal aurrera joan dadin. Markek ordea, praktikoagoa ustez, ekintza zuzena nahiago du eta elkarriketa amaigabe horretan jarraitzen dute Mogel eta Txominekin kupelan topo egin arte. Mogel eta

Txominek, egoskor, urteek ematen dien ziurtasuna baliatuz, etorkizunak ezkerrekin zerikusirik ez duela, bai ordea iraganarekin, mendi berdeez eta zazpi oin t'erdiko gizonekin esanez, zirikatze dituzte. Mark eta Agustinek bihurri eta min egiteko gogoz, Peru Abarka eta Urbiako artzaina Bilboko diskoteketan bakailoa dantzan ari direla erantzuten die, dantza hori adierazten duten keinu lizunez lagundurik. Apaizak hau entzun eta ikusirik, sutan jarri eta... hau izan ohi da Axularrek erabiltzen duen una, arbitroaren papera hartu nahian edo, eta bere diskurtsoa hasten du sagardotegiko mahiaren gainera igota intxaurazalak kris-kras zapalduz:

“Nire diskurtsoa bi partetan partitua eta berezia, lehenbizikotan ematen da aditzera, zenbat kalte egiten duen, luzamenduan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak...”.

Nik dakidala urtero hitz horren ondoren beste guztiek ahobatez eta ozenki “Gero! Gero!” oihukatuz moztu egiten dute. Orduantxe poliki goitik jaisten laguntzen dut, urteak aurrera doaz eta gizona ez dago holako txorakerietako.

Ederki pasa dute aurten ere. Hala ere, batek ez du bururik altxa, hasieran pixka bat zirikatu dute, baina ohartu direnean graziarik egiten ez ziola paketa utzi dute. Aurten Etxeparek ez zuen bertso lizunik inguruan zeuden nesKentzat, beste norbait, Larrea delako bat, aurreratu zaio euskararen paper eta tintazko plaza-txoan Arabako atetik.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Jose Antonio Altuna, non zaude?

Jose Antonio. Bada hilabete mordoxka udal zereginetatik jubilatuta zintela. Hainbeste urteetan herriarentzat lan egin ondoren, jubilazio merezia dudarik gabe.

Nork esango zidan neri, zurekin hainbeste gorabehera izan ondoren, gogoan izango zintudala.

Hirigintza gaietan aritu zinen ia esklusiboki, eta Batasunaren hirigintza irizpideak oso garbi finkaturik zenituen, nahiz ni bat ez etorri. Azken aldi honetan ordea badirudi Batasunatik (UHL) jubilatuta zaituztela ere.

Zuk, eta Batasunak zurekin, finkatu zenituen onartu berri diren Arau Subsidiarioen letra eta interpretazioa. UHLren gidari berriek, ordea, zalantzan jartzen dituzte bere egokitasunean; zuk

kontratatu zenituen teknikarien irizpideak zalantzan jartzen dituzten bezalaxe, edota zurekin hainbeste ordu pasa eta adostasun lortutako konstruktorak espekulatuzaileak omen diren bezalaxe. Seguru ez zaudela gustora.

UHL oso kezkatuta omen dago Ugarten egingo denarekin; eta Eguzkitza baserriarekin egin zena? Eta Paris etxearekin egin zena? Eta Dranba baserria? Eta Atxega jau-regia? Eta Kultur Etxea? Orain ere neurtzeko neurri ezberdina erabiltzen?

Alkatea naizenetik, hirigintza eraldaketa bat gertatzen ari da Usurbilen eta UHLkoek mutu orain arte. Zer iritzi dute Atalluko auzia konpontzea lortu izanarekin, urte luzeetan konpondu ezinik egon denean? Kalezartarrak kezkatuak dirudite azken aldi honetan, baina zenbat kalezartar

egon dira pazientziz zain expropiazio korapilatsua noiz askatuko? Zer iritzi dute Olarrondon babes ofizialeko 120 etxebizitzak eta prezio tasatuko beste 120 etxebizitzak eraikitzearekin, beraiek lurjabeak haserre bizi utzi zituztenean eta proiektua blokeatua? Zer iritzi dute Ugartondon babes ofizialeko 48 etxebizitzak eta prezio tasatuko beste 48 etxebizitzak egitearekin? Urtebeteko epean etxebizitzak horiek zozketatuak izateko aukeraren aurka al daude?

Diote, azkarregi noala, herria desitxuratu dudala. Eta nik diot, mantxoegi joan garela azken urteetan. Etxebizitza gabezia era zuzenean sufritu duen belaunaldi batekoa naiz. Agian, beste batzuk, gai honekiko nik dudana sentiberatasuna ez dute.

Jose Antonio, non zaude?

Luisuari Ormaetxea. Alkatea.

San Markoseko Mankomunitateak “Sortu zabor gutxiago!!” kanpaina abiarazi du

San Markoseko Mankomunitateak hiri-hondakinak kudeatzeko aginpidea du eta bere lanaren barruan, ohikoa denez, hiritarrentzako kontzientziazio- eta sentsibilizazio- kanpainak antolatu ohi ditu. Helburua bere lurralde-eremuan sortutako hondakinak murriztea da. Nahikoa da hurrengo zifra gogoraztea: San Markoseko Mankomunitateko biztanle bakoitzak urtean 478 kilo zabor sortzen du. Hondakinak sortzen diren lehen unean, lehen estazioan erreparatu nahi du San Markosek. Helburua? zaborra murriztea eta berrerabiltzearen prozesua sustatzea. Ez hori bakarrik, baita gure zaborrean dauden hondakin-zatien gaikako bilketa eta birziklapena sustatzea ere.

Hondakinak bereiz eta birziklatzeko datuei erreparatu, geroz eta zabor gehiago eta gero eta azkarrago sortzen omen dugu: Europako batz bestekotik hurbil, inguruko erkidego batzuen gaintik.

Nahiz eta San Markoseko Mankomunitateak birziklapena sustatzeko ahaleginak egin, hondakinak bereizteko orduan, oraindik lan handia dago egiteke: batetik ez dugu guztiok parte hartzen; eta bestetik, ez dugu guztiok eraginkortasun maila berdinean parte hartzen. Oraindik zenbait hiritarrek ez du argi nola eta non bota behar diren hondakin desberdinak.

Hondakinak murriztea helburu

“Sortu zabor gutxiago! Murriztu-Berrerabili-Birziklatu” lelopean egituratzen da indarrean den kanpaina. Era honetan, hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko gonbitea luzatzen zaie hiritarrei. San Markoseko kudeatzaileek aditzera eman dutenez, “kanpainaren azken helburuak onura orokorra” sustatzea du helburu. Hondakinak guk geuk

sortzen ditugun neurrian, arazo honen erantzunkizuna denona dela azalera, alegia.

63.000 euroko kanpaina

Kanpaina honekin, San Markoseko Mankomunitateak hiritarrek zuzeneko kontaktua izan nahi du, mezua ahalik eta argien eta eraginkorren iritsi dadin. “Sortu zabor gutxiago” kanpainak hiru hilabeteko iraupena izango du (azaroa, abendua eta urtarrila) eta guztira 63.000 euro gastatuko dira.

Kanpaina honetan hurrengo baliabideak erabiliko dira:

1. Informazio-liburuxka.
2. Komunikabideetako kanpaina.
3. Kontsumo arduratsu eta hondakinei buruzko tailerrak.
4. Informazio-puntuak kalean.
5. Kamisetak.
6. Poltsa-zorroak.
7. Etxeko postontzietan propaganda murriztearren, pegatinak zabaltzea.

Abenduaren 16an, tailer interesgarriak Udarregin

Kontsumo eta hondakinen inguruko hiru tailer antolatu dira: “Erosketetan”, “Traste zaharren kutxa” eta “Zer dago zabor-poltsan” izenekoak. Ordu eta erdiko iraupena izango duten tailer dinamiko eta partehartzaileak izango dira. Tailer hauek gure artera abenduaren 16an iritsiko dira. Arratsaldeko 19:00etan Udarregi Ikastolan.

Mankomunitate osoan, guztira, 60 tailer egingo dira: horietako 12 hiritar ororentzat (abenduaren 16an, Udarregin, arratsaldeko 19:00etan hasita). Gainontzeko 48 tailerrak, elkarreentzat, talde antolatuentzat eta ikastetxeentzat. Tailer hauen berri eman asmoz, herritar orori eginiko deialdiaz gain, 161 talde eta guneetara jo du San Markoseko Mankomunitateak: Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako 53 ikastetxe, Helduentzako Hezkuntza



ITXURA HONETAKO 4.000 POLTSA BANATUKO DIRA KANPAINA HONETAN.

Iraunkorreko 10 zentro, 29 euskalategi, 69 elkarte (kontsumitzaileenak, etxeko andreenak, erretiratuenak, talde ekologistenak...).

Informazio-guneak

Tailer hauekin batera, “Sortu zabor gutxiago” kanpainaren baitan informazio-puntu ugari ipiniko da. Informazio-puntu hauek San Markoseko Mankomunitateak udalerriguztietan egiten duen olio erabilien eta hondakin arriskutsuen bilketaren egutegiarekin bat egingo dute. Puntu horietan, kanpainaren mezu nagusiak zabaldu eta kontsumo arduratsuari buruzko tailerrak emango dira aditzera. Tokian tokiko ingurumen-hezitzaile adituak zuzeneko kontaktua izango du hiritarrek. Informazio-puntu horietan nahi adina kontsultan egin ahal izango da. Halaber, 4.000 poltsa-zorro banatuko dira puntu hauetan. Erabilera bakarreko poltsen orde, iraupen luzeko poltsa-zorro hauek sustatu nahi dira. Poltsa hauek kanpainaren irudia eta diseinua izango dute.

Usurbilen, abenduaren 1ean iritsiko da informazio-gune hori. Kaxkoan, goizeko 9:00etatik 11:00ak arte. Auzoetan, aldiz, 11:00etatik 13:00ak bitartean.



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Bekoerrotako suteaz hitz bi

Agur t'erdi guztioi. Akerra Gaztetxeko gure Atxokotik kronika idaztera natorkizue gaur ere.

Jakingo duzuen bezala Azaroaren 12an sute itzela sortu zen Bekoerrota baserrian. Ikaragarriak ziren bertatik ateratzen ziren garrak. Guk bertatik bertara ikusi ahal izan genuen gertakari ikusgarri bezain kezkarri hura. Aldameneko bizilekuan sute arriskua benetakoa izan zen une haietan.

Gu benetan kezkatu gintuen gauzetako bat "ur ahoak" seinalizatu gabe egotea izan zen. Izan ere, honeetan erantzun azkar bezain egoki bat emateko, ezin bestekoa baita bai suhiltzaileentzat, bai udaltzaintzat ere.

Aipatu beharrean gaude honelako gertakari bat berriz izan ezker, Erroizpe elkartean mangerak daudela behar denerako eskuragarri.

Akerra Gaztetxeko ekitaldiei dagokienez, Abendu honetan ere kalitatezko beste kontzertu bat izango dugu. Beti bezala guztiok zaudete gon-



bidatuta.

Udalari ere gogorarazi nahi genioke auzo honetan ditugun hainbat karentzi, hala nola pilen berziklapenerako ontziak eta Zumeta aurrean hilabeteak daramazkien "batxe", noizbait ongi jarriko duten zihurtasunarekin.

Besterik gabe, hurrengo bat arte txokoaldetar guztiei.



ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Zugatik

Zugatik. Bestela ez litzateke halakorik izango, eta ez lidake lerrook idazteko parada eskainiko: galdua, joana, iragana izango baitzen.

Atzean geratu dira, urrun daude beharrak bukatu eta bertan itxitako atearen oroitzapena. Lagunekin, bakarrik, familiarekin edo ezagutu berri batekin afaltzean emandako denbora. Eta afalosteko kafetxoa, edo zinemara joateko hartutako erabakia. <<Lasai lo egin behar dut>> burutapena. Ordu puska batzuk dira <<ez dut presarik bazkaltzeko>> edo <<azkar samar bazkaldu nahi dut arratsaldean partidua dut-eta>> esandakotik, edota pala eta pelota hartu eta frontoira joan zenekoa. Bizkar eman diogu <<gaur zer asmo ditugu iluntze aldera?>>ri, nahiz Errela nahiz Nagore eta Xalaren arteko norgehiagoka ikusteari. Gibelean daramagu beti, hurrengo egunean maindire artetik eskapo beharrean izango garen gomuta. Gomuta iluna, garuna beruna bezain astuna uzten didana,

Eta gaur zugatik, zuri esker ikusi ahal izan dut egunaren goizeko haserrea. Horren haserre non negarrez hasi eta ez den isildu malko-hustu arte. Eta minak eraginda ekarritako kotoiak desageratu dira zauria joan denean. Eta orain dator argia. Orain dator eguna.

Astelehena da iratzargailuak jotzen duen txirrinaren atea. Atea non ireki eta bakoitzak bere begiekin ikusten duen zernolako eguraldia datorkion.

Denentzat grisa ausartuko nintzateke, baina gris desberdinak. Askorentzat tonu argiak izango ditu eta gehiengoarentzat (halabeharrak beharrik gabe utzi duenaren kasuan kasi beltza) egunek aurrera ahala, gero argitzen joango diren tonu ilunak. Eta, amaieran, iluntzen joango diren tonu argiak. Eta iluna-argia-iluna-argia-iluna...

Margo dezagun orbanik gabe, erabat zuriz, asteko egun bakoitza!!

Gu geu!

*A*tlantiko isuri aldeko euskaldunak ez ditugu Amonumentu erromanikoak, ez eliza ederririk, ezta gaztelurik ere, Araban eta Nafarroan bezala, baina Egipton bezala piramideak, gure ondarea baserriak dira”, horrela zioen Josu Tellabide etnografoak “Usurbilgo Baserri eta Baserritarrak” liburua amaitu berritan.

Aurtengo NOAUA! egutegian argazkia azaltzen ez den harren, 800 orrialdeko liburu mardun honetan azalduko dira Ugarte baserriari buruz hainbat kontu eta bitxikeri.

XVI. mendeko baserria omen da, XVIII. mendean berreraikia eta duela 30 urte zeharo eraberritua. Itsatsia dagoen eraikinean, berriz, orain gutxi arte jatetxea zena, sagardoa egiten zen erruz. Goiko solairuan bi tolare daude 1920. urtekoak eta horietako bat bi ardatzekoa

gainera. Behetik gora sagarrak igotzeko, berriz, orduko karga-jasotzaile berezi bat dago bertan. Inguruko sagardotegi garrantzitsuenetako bat zen berau, sagardo asko egiteaz gain, kanpora ematen zen.

Ika-mika nahikoa sortu da baserria bota ez bota kontu honekin, etxe berriak egin behar direla eta. Azkenean ez dakit zertan amaituko den baina, azken hamarkadako eraikuntza hedapena ikusirik, inguruan genituen eta babesturiko ondareztat jotzen diren baserri asko, herri erdigunean ditugu jadanik: Gaztañaga, Artzabal, Atxega, Saroe, Kontzeju, Bizkarre...

Horrela, denon ardura da, ondare arkitektoniko, historiko eta etnografikodun eraikinak zaindu eta babestekoa, gure lehena gure ondorena izango baita.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Itxi begiak

Begiak ireki orduko ikusten da. Haur pornografia sare bat; konturatzeko adinik ez duten umeak Interneten. Jende sorgindua haurren sexualitatearekin jolasean.

Jenero biolentzia. Ehundaka emakume bortxatuak. Ehundaka mehatxatuak eta jipoituak. Ehundaka emakumeren biziak laztuak gizon baten ukabilkadagatik. Milaka emazte hilak beren senarren jelskortasunagatik.

Erresistentziaren zapalkuntza Iraken. Armak lehen, “errebeldeak” orain. Milaka errugabe lurperatuta.

Heriotza zigorra kazetari zuri bat hil zuen afganiarrantzat. Milaka afganiar hil dituen gizona Etxe Zurian.

Bere aitak nahi ez duen gizonarekin oheratzea leporatu zioten emakumeari harrikatuta

hiltzeko zigorra. Bere senarrak bost emazte dituen bitartean.

Hiru segundutik behin haur bat gosez hiltzen da munduan. Zer egin duzu atzoko ogiarekin?

Baina itxi begiak berriro, ez dezagun denbora galdu. Ez al gara ba hobeto bizi gure munduan, gure herritxo honetan? Nahikoa dugu gurearekin, besteengan pentsatzen hastea besterik ez dugu behar! Zer egingo dut urte zahar gauean? Zer oparituko diot amari? Zer erosiko dut afaltzeko? Zein filme ikusiko dut zineman? Arazoz beteta daukat burua.

Ez begiratu, ikusi ezean ez duzu ezer sentituko eta. Horrelako gauzak ez dira hemen gertatzen eta. Gauza garrantzitsuagoak dituzu buruan eta.

Noiz bihurtuko ote dira hauek guztiak gure arazo? Beharbada uste baino lehen.

Atxegalde



NEREA
KORTA

ZALOA
LEOZ

Santutenea

Bertako produktuak Astarloarentzat

Pasa den astean izan genuen gure auzoan bisitan Igor Astarloa. Askok galdetuko duzue noiz eta nola. Auzoko lagun batzuk izan ziren afaria antolatu zutenak. Lagunarteko afaria izan zen. Oraindik badira pereza ematen ez dien jendea eta horrelako afariak eta lagunartekak egiten dituztenak, bejondeiela!!

Txirrindulariari ere bere meritua emateko modukoa dela esan dezakegu. Usurbilgo herritar batek deitu, bere jarraitzailea dela esanaz eta afari bat egiteko nahia azaldu eta berehala baiezkua ematea ez du edonork egiten. Afaria egiteko berriz Aialde Berri sagardotegia izan zuten aukeratutako tokia. Oraindik sagardotegia itxita badago ere, bertan bildu ziren. Txot garairarte ez dute irekitzen baina lagunarte honetan aukera izan dute bertan izateko. Seguru hurrengorako gonbitea orduan izango dela, orain egina dagoen sagardoa probatuaz.

Jakin ere jakin dugu Usurbilgo produktuak



oparitu zizkiotela (sagardoa, babarruanak, onttoak, piperrak...). Opari egokia benetan, berriz ere gogoratuko da Usurbilgo lagunekin bertako produktu goxoak probatu ondoren. Jan edana ez zaigu falta behintzat.

Gabonak gainean

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Konturatzerako, gabonak gainean ditugu. Hau da hau, denborak ematen duen abiadura. Eta udazkena den honetan, esan beharra daukat, gure auzo honek oso itxura polita hartu duela. Zuhaitzak marroi, hori, gorri, laranja,... koloreez margoturik daude eta pasaia zoragarriak ikusten dira eguzkia ateratzen den egun fresko hauetan.

Azaroa erdialdean, ikastolako haurrekin, San Estebanera eskurtsioa egitera joan ginen. Eskaileretatik igo ginen gora eta nahiz eta bertakoa naizen, urteak ziren bertatik igo ez nintzela. Egoera arriskutsuan daude eskailera hauek: orain gainera udazkena izanik, hostoak daude lurtean eta ihintza pixka batekin, oso irristakorra gelditzen da zorua. Eskerrak baranda dagoen bide erdian, baina hala eta guztiz ere...

Parkean jolasean ibiltzeko aukera ere izan genuen eta badaude konponketa batzuk egin beharrak. Orain ez da hainbeste jende ibiliko eta udaberri bitartean badago denbora gauzak egiteko: txirristen artean dagoen pasilua konpondu...

Beti protestan ari naizela dirudi baina niri eska-



tzea libre dela erakutsi didate, nahiz eta ez ematea ere hala izan.

Eta bide berdinean jarraituz, gure farola famatuez ere hitz egitea tokatzen zait. Farolak jarrita daude baina negua iristear da eta oraindik ez dugu berain argirik ikusi. Badakit gauza hauek denbora ematen dutela baina ez nuke inor honetaz ahaztea nahi.

Gaurkoz nahikoa kexu izan dut eta beste batarako gordeko ditut gainerakoak.

Urte amaierako hainbat albiste

Kaixo denoi! Berriz ere iritsi zait tarte honetan idazteko txanda. Niretzat ez da erraza izaten zer idatzi pentsatu eta lerro hauek idaztea ez banaiz "kotillo" eta albisteetaz gehiegi enteratzen. Jarraian doakizue albistetxo labur batzuk:

Hasteko esan nahi nizueke, zuetako asko konturatuko zineten noski baina "Lastaola" baserria bota dute eta hasiak dira berria eraikitzeke lanetan ere.

Kirol abisteekin jarraituz, berriz, honezkerok denok jakingo duzue Iñaki Errasti, iaz arte Orioko arraunlari izan genuena, orain Astillerora joan zaigu. Zorte on izan dezala!

Konturaterako urtea bukatzen ere ari zaigu, aurreko astean izan dugu "San Martingo udal-



ditxo" deitzen dioten hori eta gustora asko hartu ditugu eguzki printza goxoak. Goiz arratsetan fresko egin arren eguerdiko tenperatura goxoei ezin muzin egin. Esan bezala, urtea amaitzeko zorian daukagu eta Gabonak ere gainean, horretaz jabetuko zineten noski telebistarik piztu baduzue, horko jostailu iragarkiak eta! Saltzeko prest dauden hauek ez dira lo egoten eta

badakite Olentzero, Erregeak... haurren festa izaten direla gehien bat eta iragarkiak ere hauei zuzenduak izaten dira gehienetan. Dagoeneko ezagutzen dut Olentzerori gutuna idatzi dionik ere, beraz...

Aginaga



**AINHOA
SALSAMENDI**

Garaian garaikoak

Denbora, eguneroko joan-etorria, ordenatzeko beharra izaten dugu gizakiok. Egunkoa, hilabetekoa, urtekoa eta bizialdikoa. Eta betebeharrak, ospakizunak eta bestelako erritoren segidak ematen digu, erlojuak eta egutegiak baino egokiago, gure denboraren berri.

Aspaldi, gaztetan, mendialdeko herri batean aritu nintzen lanean. Bizikleta erabiltzen nuen lanera joateko. Eta ez nengil beti garaiz: behin baino gehiagotan korrika eta presaka, azken orduan. Lanerakoan apaiza elizaren inguruan ikustea izaten zen okerrean: berandu eta bide luzea nirea eskolaraino. Bestetan apaiz zaharra elizatetik urrutiago izaten zen, harako bidean: garaiz nengil seinale. Kontua da bidean apaiza elizatetik zenbat eta gertuago ikusi orduan eta beranduago nengilela. Eta zehaztasun handiko sistema zen hura.

Gauza bera gertatzen zaigu egunen joan-etorriekin. Bidean bezalako mugarriez josi behar izaten dugu denbora. Eta orain neguko mugarriak ditugu beharrezko: gaztain janak, urte bukaerako prestaketak...

Gaztain janari buruz zer esan? Egin izan ditugula aurreko urteetan. Baina aurten Kalezarrekoek aurrea hartu digute eta ederki antolatu dute. Ea ikasten dugun. Izango ahal da Zubietan helduko dionik!

Gabonak eta Urte berria dela eta badira kontu gehiago. Alde batetik, Olentzeroren etorrerarako entsaioak hasi dira ostiraletan, arratsaldeko zazpietan. Bestetik egutegi berrirako pilota elkarteak ohikoa den argazkia egin zuten joan den astean: argazkia eta, noski, bazkaria gero.

Dena dela ez da dena errittoa Zubietan. Etxegintzak ematen du zer esana. Orain azulejoak eta pinturak aukeratzen ari dira. Batzuk laster izango dute etxea. Besteak auskalo.

Ohituraz kanpokoak dugu errauskailuaren aurkako ekimena ere. Badugu Zubietan konpostajearen interes berezia jarri duen jendea. Konpostatzea gure herrian egingarria dela uste duen jendea. Errauskailua ez dela beharrezko beste modu batean esan nahi duena. Espero dezagun, hurrengo urtean garaiko gaiak aipatzean kontu hori kanpogan gelditzea.

Zubiet




**PELLO
ARANBURU**

Abenduaren 10ean aurkeztuko dugu “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” liburua

Aurreko alean aipatu genuen bezala, abenduaren 10ean arratsaldeko 19:00etan egingo da “Usurbilgo Baserriak eta baserritarrak” liburuaren aurkezpena. Udal pleno aretoan egingo den ekitaldian, liburuaren autoreak hartuko du parte, Josu Tellabidek. Eta egilearekin batera, liburuaren argitaratzaile den NOAUA! Kultur Elkarteak lehendakariak, Ana Aizpuruak; eta Soziokultura batzordeko zinegotzi den Ibon Beristainek.

NOAUA!k 1999an egindako beka deialdian hasi zen dena. Dena den, Ziortza Elkarteari aitortu behar zaio liburu honen abiapuntua: “Usurbilgo 180 baserriren azterketa etnografikoa eta soziologikoa” lana aurkeztu eta hura izan baitzen beka deialdiko garailea. Lana, ordea, uste baino mardulagoa zen Ziortzarentzat. Josu Tellabidek zezena adarretatik heldu eta, orain, bost urteren buruan, ametsa liburu bihurtu da.



JOSU TELLABIDE AZKOLAIN EK IDATZI ETA NOAUA! KULTUR ELKARTEAK ARGITARATU DUEN LIBURUA LASTER IZANGO DA SALGAI, BAI NOAUA!KO BULEGOETAN BAITA OHIKO SALTOKIETAN ERE.

Pasarte atseginez osatutako liburua

Antzeko liburuetan ez bezala, Josu Tellabidek idatzi duen lan mardul honetan baserriak bezain garrantzitsuak dira baserritarrak. Horregatik da bizia liburua; bizia eta gertukoa. Une askotan, hunkigarria. Argazki eta datu askoren artean, badira atseginak diren kontakizun asko. Horietako batzuk aurreratu ditugu ale honetan. Hauek eta gainontzekoak, “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” liburuan aurkituko dituzu.

AGUAZILARI IHES EGITEN

Garai batean ezin zen herri batetik bestera janaririk eta Gedaririk kontrolik gabe eraman. Produktuak herri batean erosi, eta beste herri batera pasatzeko, arbitrio ordaindu beharra zegoen. Horretarako, aguazilak egoten ziren herrietako sarreretan. Joxe Ramon Huizi, Araetakoa, zen Zubietako aguazila, eta Lasarten erositako kafea eta jakiak Zubietara ekartzen ote zituzten kontrolatzen egoten zen Kateeta deitzen den lekuan, Goiaran eta Altzurako bideak gurutzatzen diren tokian, alegia. Tellerikoa baserriko Dolores Aranburuk Altzun gertatutako istorioak kontatzen ditu. “Altzuko Joxepantonik Lasarten ardoa erosi eta etxera eramaten zuen, eta bidean han ateratzen zen Joxe Ramon, zeramana kontrolatzera. Eta Joxepantonik, ikusten zuenean, ihes egiten zion erriberetako barazetan barrena ahal zuen moduan”. Batez ere, kafea eta antzeko produktu bereziak kontrolatzen ziren.

ARRATZAINGO BILERA

Romana Olasagasti Arratzainberriko alabak kontatzen duenez, garai politak izan ziren haiek. Bordatxo inguruan biltzen ziren igandez koadrilak, eta Arratzainbordan egiten zuten bilera. Baserriko atarian, esku soinua Benito Zinkunegik jotzen zuen. Benito inguruko soinu-jole bakarra zen, Baldazarreko semea. Gramola ere jartzen zen garai hartako musikarekin: “Azul de Metileno”, “Katuska”, “Lisboa Antigua”, tangoak eta abar. Romanak dio “hara joaten ginen Arratzaingo gazte guztiak dantzara, Dranbenekoak, Txantxonenekoak, neskak ginen, eta bertako mutilak ez ziren etortzen. Aginaga, Kalezar eta Kaleberri aldetik etortzen ziren haiek. Dantza egin... eta eguzkia sartzerako etxera, txintxo gainera!” kontatzen du Romanak. Hala ere, Julian Azpiroz Usurbilgo erretoreak ahaleginak egin zituen bilera hura kentzeko, baita lortu ere. “Baina gu -dio Romanak-Mendizorrotzetik honuntza, Igeldo partean, gaur Polipasoren taberna dagoen lekura joan ginen. Hura zen gure dantzalekua, eta han ez zen Don Julian gurekin sartzen, han libre genuen...” Donostia partea baitzen. 1941 eta 1943 arteko istorioak dira.

“Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” (Josu Tellabide Azkolain, NOAUA! KULTUR ELKARTEA, 2004) liburutik hartua. Abenduaren 10ean, udal pleno aretoan egingo da liburuaren aurkezpena, 19:00etan.

800 orrialde eta 1.286 argazki

Inprentatik iristear da usurbildar lororen bihotza hunkituko duen liburua. Argitalpen honetan ordu asko eman ditu Josu Tellabide autoreak; hala nola, liburuaren koordinazioaz arduratu diren Jakoba Errekondok eta Iñaki Salsamendik.

Ongi irakurri duzu, 800 orriz osatzen da "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburua. Koloretan argitaratuko da eta tapa gogor batez babestua. Denera, 1.286 argazki eta 41 dokumentu jasotzen ditu liburu honek. 1.286 argazkietatik gehienak, 920 hain zuzen, argazki zaharrak dira. Gainontzeko erretratuak berriak dira, espreski liburu-rako eginak. Baserrien erretratu zaharrek batera, gaur egungo irudiak ere jaso nahi izan baitira.

281 informatzaile

800 orrialdeko liburu bat ez da egun batetik bestera egiten. Josu Tellabidek 281 informatzaile izan ditu bide-lagun. Hauei esker, baserrien inguruko informazio eta argazki mordoa bildu ahal



1.286 ARGAZKI BILTZEN DITU LIBURUAK, TARTEAN, ZUMITZAGAKO ZUBELDIA GOROSTIAGA SENDIAREN ERRETRATU HAU (1940)

izan da. Bestelako informatzaileak ere izan ditu, Usurbildik kanpoko baserritarrenak (beste 13 lagun).

Jose Jabier Furundarena eta Marijo Maiz izan dira liburuaren zuzentzaileak. Iñaki Eizagirre, aldiz, liburuaren make-taz eta diseinuaz arduratu da. NOAUA! Kultur Elkartek argitaratu duen liburua izaki, Antza inprimategia izan da argitaratze-lanak egin dituenak.

Hauei guztiei esker, eta Usurbilgo Udalak eman duen dirulaguntzari esker, hamaboskaria martxan jarri zenetik hona izan duen erronka handienari aurre egin ahal izan dio NOAUA! Kultur Elkartek.

Liburuaren aurkezpen-ekitaldia irekia izango denez, zuen zain izango gara abenduaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan, udal pleno aretoan.

Zumeta margolaria, Erandioko azoka zaharreen

Epelde&Mardaras galeriaren eskutik, Jose Luis Zumeta margolari usurbildarrak erakusketa berri bat ireki du Erandioko azoka zaharreen. Zumetaren lanak urtarilaren zazpita arte egongo dira ikusgai. Ordutegia, hauxe: eguerdiz, 11:30etik 13:30ak arte; arratsaldez, 17:00etatik 20:00ak arte (egunero).

Erandioko azoka zaharreen, neurri ezberdineko 50 bat koadro daude. Neurri handiko hiru margolan ezik, gainontzeko guztiak berriak dira, 2003 urtetik honantz egindakoak. Paperean eginiko 6 tenpera ezik, beste guztiak oleoak dira. Aurreko lanekin alderatuz, oraingoan marra beltzak nabarmentzen dira margo denetan. Galeriako arduradu-



BI SITARIAK BI LAN HAUEK TOPATUKO DITU ERANDION.

nek aditzera eman digutenez, arrakasta handia izaten ari da erakusketa, salmentan erreparatzea besterik ez dago. Lan gehienak salduta daude, beraz, Zumetaren margo hauetako bat eskuratu nahi baduzu, azkar mugitu beharko duzu.

Jende ugari Erle Egunean

Goiz partean jende gutxi zebilen garren, eguerdirako dema-plaza pilpilean zen. Ohi bezala, Euskal Herriko Ezti Lehiaketak eztizale ugari erakarri zituen. Argazki rally-ak ere, arrakasta handia izan zuen. Erakusketa abenduaren 18an egongo da ikusgai Udarregi Ikastolako aretoan.

Irudian dituzue ezti lehiaketako garaileak: eskubitara, Felix Bidegi, lore anitzeko lehiaketako irabazlea. Ezkerretara, Julen Sainz, lore bakarreko sariaren irabazlea. Enkantean, 2.000 eurotara igo zen ezti-potoen prezioa.



200 etxebizitza hutsik daude Usurbilen

Etxebizitza premia handia da, bai hemen, eta baita inguruko herrietan ere. Honen haritik, etxebizitza ugari eraiki nahi da epe laburrean. Gazte eta ez hain gazteren etxebizitza premia, ordea, beste alternatiba batekin asetu daiteke: hutsik dauden etxeak alokairu bidean ipiniz. NOAUA!ren iturrien arabera, Usurbilen 200 etxebizitza inguru dago hutsik. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak martxan jarri berri duen zerbitzuarekin, Bizigune izenekoarekin, etxejabeek jarri ohi dituzten errezeloak desagertzen dira.



ETXEBIZITZA HUTSAK MOBILIZATZEKO BIZIGUNE PROGRAMA
ABIARAZI DU EUSKO JAURLARITZAK,

Etxebizitza hutsak merkaturatzeko ekimena

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak programa aitzindari bat jarri du abian, etxebizitza hutsak mobilizatu eta merkatu librean etxebizitzak eskuratzeko ekonomi baliabide nahikoak ez dituzten pertsonak erabil ditzaten: Bizigune programa.

Bizigune programarekin, oinarrian, etxebizitza hutsen jabeek Visesa erakunde publikoaren esku uzten dituzte etxebizitza huts horiek, eta ordainetan errenta jasotzen dute hilabetero. Errenta zuzentasunez ordainduko zaiela eta kontratua amaitzean etxebizitza egoera onean itzuliko dietela bermatzen die Visesak etxebizitzaren jabeek; gainera, maizterrei dagokien kudeaketa guztiaz arduratzen da.

Zein abantaila ditu Bizigune programak?

- Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Visesa erakundeak zuzentasunez ordaintzen du hileko errenta, eta errenta hori etxebizitza dagoen barrutiko alokairuen prezioen arabera kalkulatu da.
- Visesa da etxebizitza zaindu eta kontratua amaitzean egoera onean itzultzeko ardura hartzen duena.
- Visesak doan finantzatu ditu etxebizitzari bizigarritasun-baldintzak emateko beharrezkoak diren lanak, 18.000 euro arte, gehienez.
- Visesak egingo ditu etxebizitzak alokatzeko gestio guztiak.

Usurbilgo Udala, adi

Bizigune programa indartu eta hutsik dauden etxe horiek merkaturatu ahal izateko, garrantzitsua litzateke Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburua eta Usurbilgo Udalaren arteko hartuema-na sendotzea. Bizigune programa sustatzeko garrantzitsua litzateke bi erakunde-en arteko nolabaiteko akordioa. Zentzu horretan, Luis Mari Ormaetxea alkateak zera aitortu digu: “zerbitzu hori eskaintzea aztertzen ari gara, lehen hastapenetan gaude”. Alkatea Etxebizitza Zuzendariarekin elkartu da gaia aztertze-ko eta borondate politikoa agertu dute bi aldeek.

Etxejabeak jakin beharrekoa

Zein baldintza bete behar ditu etxebizitzak?

- Etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoan egotea.
- Etxebizitzako azalera erabilgarria 120 m² baino handiagoa ez izatea.
- Hileko errenta 660 euro baino garestiagoa ez izatea.
- Programan sartzeko eskabidea egin aurreko 12 hilabeteetan etxebizitza hutsik eta alokatu gabe egon izana.
- Etxebizitza libre izatea, eta ez babes ofizialekoa.

Etxebizitza bat programan onartzeko eskaera

Ezaugarri horiek dituen etxebizitzarik baduzu, dei ezazu Visesara, eta Bizigune programak dituen abantaila guztiei buruzko informazio zehatza emango zaizu, inongo konpromisorik gabe.

Etxebizitza huts baten jabea bazara eta Bizigune programa parte hartu nahi baduzu, informazioa eska dezakezu 900-251-251 doako telefono-zenbakian, edota web orrialde honetan: www.etxebide.info.

Etxe huts horietako bat alokairuan eskuratu nahi duenak jakin beharrekoa

Etxebiden izena eman dutenek lehentasuna dute

Visesak Etxebiden (Etxebizitzako Euskal Zerbitzua) izena emanda dagoen pertsona edo bizikidetzaren baten esku utziko du etxebizitza hori, eta diru-sarreraren arabera alokairua ordainduko dio Visesari.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak estaltzen du Visesak etxe-jabeari ordaintzen dion errentaren (merkatukoa) eta hark maizterrari kobratzen dioenaren (gizarte-errenta) arteko aldea.

Nola eskuratu etxebizitza huts horietako bat?

Etxebizitza horiek eskuratzeko Etxebideko erregistroan inskribatuta egon behar da, eta etxebizitza hutsen programan parte hartu nahi dela adierazi behar da inskripzio-eskaeran. Etxebizitza horietako bat jasotzeak

ondorio hauek ditu:

- Etxebizitza duin bat eskuratzeko Etxebiden eskatutako udalerrian.

- Etxebizitza jaso duen pertsonaren edo bizikidetzaren unitateren diru-sarrerekin proportzionala den hileko errenta justua ordaintzea: ordainduko den gehieneko errenta ez da pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen sarreraren %30 baino handiagoa izango.

- Etxebideren erregistroan jarraitzea, babes ofizialeko etxebizitzak erosteko eta etxebizitza sozialak alokatzeko aukerei dagokienez.

Zer baldintza bete behar dira?

- Etxebizitza baten jabe ez izatea, adjudikazio-dataren aurreko bi urteetan.

- Euskal Autonomia Erkidegoan errol-datuta egotea, gutxienez, urtebete lehenago.

- 3.000 euro eta 33.100 euro arteko diru-sarrerak izatea urtean.



ETXEBIDEN IZENA EMANDAKOEN

LEHENTASUNA DUTE.

Baldintzak betetzen badituzu, nola eman izena?

Etxebiden inskribatuta bazaude, eta etxebizitza hutsen programan parte hartu nahi zenuela adierazi bazenuen, zure eskabidea sartu da adjudikazio-prozedura guztietan.

Hala ez bada, 012 telefono-zenbakira deitu ezazu. Etxebizitza Ordezkaritzetara edo entitate hauetara ere jo dezakezu: BBK, Kutxa, Vital Kutxa eta Euskadiko Kutxa.

Zalantza ohikoenak argitzen

Zein dira kentzen diren kudeaketa-gastuak?

Etxebizitza programan onartzeko prozesuak eta alokairuaren kudeaketak sortzen dituzten gastuak dira; besteak beste, egokitasun-txostenak, bizigarritasun-txostenak, txosten teknikoak, aseguruak, tasazioak, etxebizitza merkaturatzea eta programa kudeatzeko Visesak egin behar dituen gastu guztiak (giza baliabideak, baliabide materialak, logikoak...).

Zer gertatzen da maizterrak errenta ordaintzen ez badu?

Maizterrek errenta ez ordaintzeak ez du eraginik izango jabeengan, haiek errenta berdin kobratuko baitute; aitzitik, Visesari soilik eragiten dio, eta hark ditu maizterren aurka beharrezkoak irizten dituen akzioak

egikaritzeko eskubideak.

Nork ordaindu behar ditu ura, gasa, IBIa eta komunitate-gastuak?

Ondasun higiezinaren gaineko zerga eta komunitate-gastuak etxebizitzaren jabeak ordaindu behar ditu. Ura, argia, gasa eta abar, maizterrak.

Zein da kontratuaren gutxieneko iraupena?

Hiri-errentamenduen Legeak 5 urteko gutxieneko epea bermatzea eskatzen du.

Zer gertatzen da kontratua amaitzean maizterrak etxebizitza uzten ez badu?

Visesa denez kontratuaren amaieran etxebizitza itzultzeko arduraduna, dagozkion legezko neurriak hartuko ditu maizterra etxebizitza uztera behartzeko. Kontratuak

berariaz adieraz dezake, hura formalizatzean, maizter-botatze demanda egiteaz arduratzeaz gain, Visesak kalte-ordain bat eman beharko diola etxebizitzaren jabeari. Kalte-ordainaren zenbatekoa ezingo da izan, hileko, errenta tasatuaren %150 baino handiagoa.

Zer gertatzen da kontratua amaitzean etxebizitzak kalteak baditu?

Maizterrak etxebizitza egoera onean itzultzeko konpromisoa hartzen du Visesarekin. Konpromisoa betetzen ez badu, Visesak egoki irizten dituen akzioak erabili ditzake maizterrak konpromiso hori bete dezan, edo konponketak egin ditzake jabeari gasturik eragin gabe. Etxe-jabeak egoera onean jasoko du etxebizitza.

GLG
garraioak
ZABOR BILKET
TELF: 943 37 01 46

al s p s t e r a



Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Etze k
Fla kklrn
Is-(kz k(IN ? +)
Exz r zu (s - dzk)
In nk k(+)
n a nk ak
Eriku - k l k(wr - kr lkl) au
Zur - zk uzl - n

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Usurbilgo Batasuna: “Urrats berriak emateko garaia da”

Batasunak Donostiako belodromoan aurkeztu zuen ekarpenak zeresan ugari eman du. Ekitaldi horren ostean, Batasunak herriz herri aurkeztu eta konpartitu nahi du “gatazka konpontzea ekar dezakeen” proposamena. Usurbilen hasi dira ekarpena gizarteratzen. Honakoan, Batasunako kide diren Agurtzane Solaberrieta eta Marisa Alejandro izan ditugu solaskide.

NOAUA. Nolako izan da Batasunaren ekarpenak jaso duen erantzuna?

Agurtzane Solaberrieta. Azaroaren 14an ekarpena bera aurkeztu aurretik, ezker abertzaleak bazuen zirriborro bat eta egoki ikusi zuen militantzia osoarekin konpartitzea. Ekarpen horretan, batetik, azken 25 urteotako balantzea egiten da; eta bigarrenik, egungo egoeraren irakurketa egiten da. Ezker abertzaleak egiten duen irakurketa hori konpartitzearen, urrian hasi ginen hainbat herritarrekin biltzen. Orain arte, 50 bat pertsonarekin bildu gara. Gabonak arte, metodo honekin jarraituko dugu. Talde txikitik banatuta, jendearekin aurrez aurre egon eta gure ekarpena aurkeztu dugu, azken 25 urteotako balantzea eginez eta jendearen iritziak bilduz.

Honekin lotuta, abenduaren 17an ekarpena Usurbilen aurkezteko ekitaldi berezia egingo dugu.

N. Usurbilen egin zaizuen harrerarekin gustura, beraz.

A. S. Gustura gaude jasotzen ari garen erantzunarekin. Jendeak pozik hartu du egiten ari garen lana. Guretzat lan astuna da, baina herritarrek eskertzen dute gure ahalegina. Eta erantzuna positiboa da.

“Erronka elektoralei ondo erantzun die gure oinarri sozialak”

N. Alderdien Legeak zein neurritan baldintzatuko du zuen jarduerak?

A. S. Alderdien Legeak helburu garbia zuen: ezker abertzaleari bere eremu instituzionala kentzea eta gure oinarri soziala hustutzea. Alderdien Legeak ematen dituen bitartekoak aprobetxatuz, eta erre-



DAGDENEKO USURBILÉN HASI DIRA BATASUNAREN EKARPEN BERRIA GIZARTERATZEN.

presioaren bidez, ezker abertzalea klandestinitatera eramanez trintxerari ezkutarazi nahi izan dute. Abuztuaren bi urte bete ziren Alderdien Legea indarrean sartu zenetik. Hiru erronka elektoralek izan ditugu aurretik, eta ilegalizazioaren ikuspegitik, ezker abertzaleko oinarri sozialak ondo erantzun die erronka horiei. Ezker abertzalearen proiektua herrian sustraituta dago, eta hori argi geratu da hauteskundeetan. Herri honen zati batek bat egiten du gure proiektuarekin eta ilegalizazioak ezin izan du horrekin amaitu.

Urratsak ematen ari gara eta azaroaren 14ko ekitaldia da horren adierazgarri. Batasunak egin zuen deialdi hori eta 15.000 pertsona bildu ziren Anoetan. Elkarrizketa hau ere, Batasunaren izenean egiten ari gara. Atrintxeratu gabe, aurrera egin dugu. Errepresioa egon badago, azken asteotako atxiloketak dira horren adierazgarri, baina horri aurre egin behar diogu.

Marisa Alejandro. Ilegalizazioaren ostetik, ekimen ugari burutu ditu Batasunak: Bergarako Proposamena, hainbat manifestazio, hainbat ekitaldi... gure presentzia mantentzen saiatu gara. Hasieran egokitzeko kostatu zitzaigun; ez guri bakarrik, ordea, denei.

“Ezin dira aurrebaldintzak jarri”

N. Orokorrean hitz eginez, gainontzeko alderdientzat Batasunak eman duen urratsa kontuan hartzeko dela esan daiteke. Baina ETaren indarkeria ez gaitzetsi izana eta su-etena ez eskatu izana leporatu zaio Batasunari.

M. A. Kontuan hartu behar dugu gauza bat: aurkezpen publikoa egin aurretik, alderdi batzuk su-etena eskatu behar genuela esaten hasi ziren. Jakin gabe zein izango zen gure proposamena. Proposamena egin eta gero, ordea, zenbaitzuk atzera egin behar izan dute. Zenbaitzuk betiko *koletillarekin* dabilta: “tregua eskatu egin behar da, tregua eskatu egin behar da”. Egoerari aurre egin beharrean, goazen gauzak konpondu eta gatazka gaingintzera... Batzuentzat hobe da “kondenatzen duzunean” delako postura geldoan mantentzea, eta kitto.

A. S. ETaren jarduerak armatua gaitzesteak ez du gatazka beste parametro batzuetan jarriko. Besteei ez diegu ez dakit zer gaitzestea eskatzen. Guk ulertzen dugu horrelako prozesu batean sartu behar badugu, ez ditugula aurre baldintzak jarri behar. PSOeri ez diogu GALen garaia gaitzestea eskatu, presoen sakaba-

naketa gaitzeztea eskatu... EAJri berdin. Hemen denok ditugu gaitzesteko eta ez gaitzesteko motiboak.

Prozesu bat abiatu behar bada, ezin dira aurre baldintzak jarri. Lizarra-Garazin ez zen aurre-baldintzarik jarri. Mahai batean eseri beharko dugu eta gatazka armatua gainditzeko zer egin behar dugun aztertu beharko dugu. Gaitzespenaren argudio hori erabat agortuta dago, pisua galdu du. Gainontzeko alderdientzat, elkarrizketari eta gurekin hitz egiteari uko egiteko aitzakia da. ETArekin azken agiriak argi dio: "saiatu gabeko bideak saiartzeko garaia da". ETAK dioenez, "horrelako prozesu batean burubelarri murgiltzeko, nahi duen orori gure borondate zehatzaren berri emateko prest gaude, zuzenean, edo hartutako bitartekari bidez". Hemen, gatazka armatuaren zati bat, prozesu bat abiarazteko prest dago. Ez dugu ulertzen nola ez zaion bate-re zilegitasunik ematen.

N. Radio Euskadik ateratako hainbat agiri ere hor gaude.

A. S. EITBk atera zituen agiri horiek eta, gure ustez, nahasmena sortzea zuten helburu. Horietako bat, urriaren 12ari begira, ETAK plazaratu zuen agiria zen. Donostiako ekitaldia eta gero, bi egunetara, agiri horiek plazaratzea, moskeatzen du.

Ikusten da batzuen borondatea non dagoen: sortu diren espektatibak zapuztea.

M. A. Indarkeria gaitzesteko jarri duten indarra, beste gai batzuetan jarri izan balute, gatazka gaindituta egongo litzateke aspaldi. Zoritxarrez, alde bakar batera begiratzen dugu bakarrik. Gauzak dauden bezala, aurrera begira jarri behar dugu eta denon artean zerbait abiarazi.

N. Analista eta aditu askoren ustez, Batasunak urrats bat eman du bide politikoari lehentasuna ematerakoan. Analisi horien inguruan, gainontzeko alderdiekin mahai bat osatzeko garaia izan daiteke oraingoa?

M. A. Bide politikoa betidanik egin dugu. Orain arte, edozein instituzioetan bide politikoa landu dugu. Gainontzeko alderdiek bota gaituzte instituzioetatik. Herriak guri eman dizkigun eserlekuak lapurtu dizkigutenean eta lan instituzionala egitea ukatzen digutenean, orain bide politikoa hartu behar dugula? Kontraesana dirudi. Hala ere, gu horretan jarraituko dugu.

A. S. Alderdiekin beti egin dira bilerak. Azaroaren 14ko ekitaldia egin aurretik, gainontzeko gizarte eragileei ekarpenaren funtsa aurkeztu zitzairen.

Ziklo berri baten atarian

NOAUA. Ziklo berri baten atarian eginiko ekarpena al da hau?

Agurtzane Solaberrieta. Une hone-tan ikusten dugu ziklo autonomikoa agortu egin dela. Ez dugu guk bakarrik esaten, askok esaten dute.

Marisa Alejandro. Orain dela 25 urte Estatutua jarri zen martxan, eta ikusi da ez zela gure herriak dituen arazoei aurre egiteko tresna egokiena. Espainian ere, trantsizioa ez zen behar bezala egin eta orain estatu ereduaren inguruko eztabaida pil-pilean da. Europako Konstituzioaren inguruko erreferenduma otsailean egingo da...

A. S. Proposamen ezberdinak daude mahai gainean eta proposamen askotan ikusten da herriari hitza eman behar zaiola. Ezaugarri horiek guztiak kontuan hartuta, urrats berri batzuk emateko garaia dela uste dugu. Gatazkaren konponketa ekar dezakeen ziklo batean sartu behar dugu, orain artekoak gatazka konpontzeko ez baitu balio, gatazka areagotu besterik ez du egin. Gure ekarpena bide horretan doa.

M. A. Batasunak pausoa eman du, gainontzekoek nola erantzuten duten ikusi behar.

"Eztabaida politikoaren ardatza herri kontsulta izatea pozgarria da"

NOAUA. Egungo egoeraz egiten duzuen azterketan, "herri kontsulta eztabaida politikoaren ardatza" dela esaten da. Ibarretxeren proposamenak ere herri kontsulta jasotzen du bere baitan. Ezkongarriak izan al daitezke bi kontsulta-proposamen horiek?

Agurtzane Solaberrieta. Ez dakigu Ibarretxek ze kontsulta planteatuko duen. Une honetan, eztabaida politikoaren ardatza herri kontsulta izatea pozga-

ria da. Urtetan aldarrikapen hori egiten aritu gara. Beste alde batetik, jakin beharko dugu Ibarretxek zer galdetuko duen.

Marisa Alejandro. Herri hau beste norabide batean jarri nahian, Batasunaren proposamena alderdi eta eragile guztien artean adostu nahi da. Ibarretxe Plana, aldiz, alderdi baten plana da, non beraiek ari diren egosten eta ez dakigu zein asmo dituzten eta zertarako balioko duen plan horrek.

A. S. Herri kontsulta horretan galdera bat egin behar bada, denon artean adostu beharko dugu. Mahai batean bildu gaitzen eta argitu dezagun behingoz herri honi zer galdetu behar zaion. Guk garbi dugu herri honen egitura politiko-juridikoa aldatuko duen prozesua jarri behar dugula martxan. Ekarpenean diogun bezala, eragile guztiak adostu beharko dute prozesua, eta gero, herriaren onespina izan beharko luke.

PATRI

JATE TXEA

Eguneroko menuak
- Plater konstanteak
Ogiarrezkoak

Tel: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



Ugarte baserriaren balioa aldarrikatu du UHLk

Udalak Ugarte baserria botatzeko asmoa duela azaldu zuen Usurbilgo Herri Lanek (UHL) abenduaren 26ko eguerdian eskaini zuen prentsurrekoan. Hala azaldu zuen Arantxa Manterolak, UHLko kideak: "Ugarte baserria katalogatua eta babestua dago. Hala ere, XVIII. mendeko baserria bota eta, ordez, 20 etxebizitzako eraikina egiteko baimena ematera doa Udala".

UHLk Ugarte baserri atarira deitu zituen komunikabideak. Bertan esandokoren arabera, Larrain-Moyua enpresa eraikitzaileak kontsulta urbanistikoa egin omen dio Udalari. UHLren esanetan, "baserria bota eta, ordez, eraikin berri batean 20 etxebizitza eta garajeak egiteko aukera" aztertzen ari dira. Kopuru hori ez dator bat gaur egungo Arau Subsidiarioek diotenarekin. Komunikadideen artean banatutako eranskinak dioenez, "Arau Subsidiarioek diotenaren arabera, Ugarte

baserriari osoki ostalaritza edota egoitzazko erabilera ematerik dago. Hori bai, beti ere egungo eraikina mantenduz eta soilik 14 etxebizitza eginez".

UHLkoek, ordea, Udalak araudiaz egin duen interpretazioa salatu nahi du: "Udalak, interpretazio malgua, oso malgua edo, behar bada, interesatua eginez, baserria botatzeko eta 20 etxebizitza izango lituzkeen beste eraikin berria egiterik dagoela dio".

Udal-teknikarien txostenen arabera, ordea, mantendu behar den bakarra lurrean okupatzen duena, eraikuntzaren profila eta solairuak eta azalera dira. Baliozko elementu batzuk (lehioetako harlanduak eta ateetako zurezko bilbapenak) berreraibili egin beharko direla. Honi buruz, UHLk dio "udal-teknikarien txostenak ez du kontuan hartzen ez fitxa urbanistikoan arautua, ezta katalogatua egote hutsak ondasuna mantentzeko eta hobetzeko dakarren obligazioa ere".



UDAL HAUTESKUNDEETAN LEGEZ KANPO UTZI ZUTEN UHL PLATAFORMA.

UHLk dioenez, Ugarte baserriko promozioa "Ugartondo eremuan egin nahi den operazio urbanistikoarekin lotuta dago. Han aurreikusi gabe zeuden 200 etxebizitza egiteko asmoa dute eta, hori, onartu berriak diren Arau Subsidiarioetan aurreikusitako etxe bakar bat ere egin ez denean".

Hau guztia azaldu asmoz, abenduaren 2an, arratseko 19:30ean, Kalezarren egingo den batzarrera deitu du UHLk.

Zumarte, Alemanian kantari

Zumarte International. Islandian izan ziren uda partean eta, egun hauetan, Alemanian ditugu Musika Eskolako kantari gazteak. Fin dabilzan seinale. Abenduaren 8a bitartean, Zumarte Gazte-Oinarri Abesbatzak hainbat kantaldi eskainiko ditu Alemaniako Max-Planck-Gymnasium (MPG) Institutuko abesbatzarekin batera. Martxoan inguruan, alemaniarrak izango dira Euskal Herrira etorriko direnak.

Zumartekoak, kantari atzerrian eta kantari etxean. Abenduaren 12an, esate baterako, Zumarte-Orereta Abesbatzak kontzertua eskainiko du Arabako Arespalditza herrian, eguerdiko 12:30ean hasiko den jaialdian.



SANTA ZEZILIA JAIALDIKO IRUDIA.

Kontzertu honen lehenengo zatian Etxaurren Ikastola, Amurrioko "Eskolania", Laudioko "Gazte Ahotsak" eta "Cantarelus" Amurrioko eskolaniak hartuko dute parte, eta bigarren zatian, berriz, Zumarte-Orereta Abesbatza izango da protagonista nagusia.

Errauste planten aurkako taldeek ikur berria aurkeztu dute

Errauste planten aurkako herri plataformen koordinadorak Nestor Basterretxeak diseinaturiko logo berria aurkeztu zuen. Jada eskuragai da.



EUSKAL OKELA

CARNE DE BACUNO DE CALIDAD DEL PIRINEO

h k k l , 4

T II 433 6742

LK

UT ZE

ETXEK

T

ITZU

F IT K

ZKI K

IKTU K

K NOEL TU K

Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Abenduaren 15ean hasiko da Mendi Astea

Andatza Kultur Kirol Elkartek antolatu duen Mendi Astea ekitaldi interesgarri osatuta dago.

Abenduak 15, asteazkena
Mendikate zuria (Peru). Harkaitz Iparagirre (Usurbil), Iñaki Zaldúa (Orio).

Abenduak 16, osteguna
Laos, Vietnam eta Kanputxea (Camboia) bizikletaz. M. Iribar (Orio), A. Subijana (Getaria), H. Alberdi (Getaria).

Abenduak 17, ostirala
Hojos del brujo, Patagonia (Argentina). Iosu Gutierrez (Usurbil).

Abenduak 18, larunbata
Mendi irteera goiz partean eta ondoren

elkarteko urteko bazkaria.

Mendi ibilaldiaren irteera ordua goizeko 8:00etan izango da frontoi atzetik. Autobusez Alkizaraino joan eta handik oinez Erniora igo eta gero Albizturra jeitsiko dira bazkaltzera. Babarrun jan ona egin eta buelta berriro autobusez egingo da Usurbila.

Txartelak Txiriboga tabernan egongo dira salgai (autobusa eta bazkaria barne). Salneurria: 25 euro. Erosteke azken eguna, abenduaren 16a.

Abenduak 19, igandea

Umeen ibilaldi neurtua. Irteera goizeko 9:00etan emango zaio frontoitik bertatik.



IGOR ASTARLOA, AIALDE BERRIN. Berriaren aldeko kanpainan, Iñaki Larrañagak Igor Astarloaren kamiseta irabazi zuen enkantean. Ondorenean, sinadura eskatzera hurbildu zitzaion Astarloari. Hortik sortu zen bien arteko laguntasuna. Azaroaren 25ean, Aialde Berri sagardotegian bildu ziren Astarloaren hainbat jarraitzaile, tartean, munduko txapeldun izandakoa, Igor Astarloa bera.

Usurbildarrak Maratoian



AZAROAREN 28AN JOKATU ZEN DONOSTIAKO MARATOIA. EHUNDAKA LAGUNEN ARTEAN, USURBILDARRAK HAUEK: JOSE MANUEL ALGORTA, PATXI PAGOLA, GORKA, IÑAKI (GOIAN), JON CARBAYEDA, IBON BERISTAIN, KOLDO ETA PATXI SASIAIN (BEHEKO IRUDIAN).

Aitzaga Pilota Txapelketa

Lau t'erdiko Pilota Txapelketa honetan federatuak ez diren pilotariak aritu ohi dira, bikoteka. Abenduaren 9an amaituko da izena emateko epea. Aitzaga Tabernan bertan eman behar da izena. Inskripzioa, 12 euro bikoteko. Txapelketaren xehetasun gehiago abenduaren 9an Aitzagan egingo den bileran.

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa

Nagusien Lehen Mailan, finalerdietara iritsi dira Enrike Huizi eta Asier Arruti. Finalaurrekoetan, Bergara izango da Usurbilgo arerioa. Nagusien bigarren mailan eta kadeteen mailan ere, lan txukunaosatzen ari dira usurbildar pilotariak.

**MIKEL
IZ GI E**

ELEKTROITIK

Urbil, 7
Rte
el - 111

ANDONI PINTURAK
Fotografia eta
barnelantetan Espezializatua
C/Etxeberri, 2 (kaltegar) Usurbil
Tel.: 943 361 318
Móvil: 605 702 517

LATXA
Kutxak denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Zabala 2, Usurbil Tel. 605 301 803


SOLOZABAL AUTOESKOLA



- Klase teoriko zein praktikokoak, norberak nahi dituenetan
- Klase teorikoak ikusentzunezko abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariek gurrualtzeko nazio arteko agentzia ziburta agiria lortzeko ikastaroak
- Garraio arriskutsuen ikastaroak
- Gidatzeko karnet guztiak

Kale Nagusia Telf.: 943 376 936 Usurbil 20170





Aralartik

Aralarren gaude egun pasa etorrita Usurbildik (bis) motxila bizkarrean dugula kukuka pago artetik.

Eta kriskitin kraskitin arrosa krabelin kukuka pago artetik.

Udarregitik Aralarrera bueltaxka bat ematera (bis) motxila eta brujularekin mendizaleen parera.

Eta kriskitin kraskitin...

Aralarko Tuturre da muga udazkeneko txangoan (bis) bidean zehar kantari goaz nor galduko da basoan?

Eta kriskitin kraskitin...

Goardaetxetik abiatuta Tuturreko gailurrera (bis) argazki batzuk atera eta orbel tartean galtzera.

Udarregiko usurbildarrek zapaldu dute Tuturre (bis) paisaia dago hori-berdexka ta zeruan hainbat putre.

Eta kriskitin... Tuturrera oinez igo gara denok korri ta saltoka (bis) Mikeli ezin jarraitu eta oinez Mertzexeri segika.

Eta kriskitin...

Napar aldeko mugan Aralar bortitza bere goardian erne Txindokiko haitza Bizkai aldera jota bistan Udalaiz da gure begiak berriz urruti dabilta Andatza ikusi nahi horra gure gaitza!

Tuturreko puntatik iparraldera so Gipuzkoa estalita lainozko itsaso herritxoak azpian lotan goxo-goxo esnaturik ardiek burutxoak jaso zintzarriak eragin harrituta oso.

Hona etorri gara Aralar puntara kostatu zaigu baina jada hemen gara batzuk bueltatu nahian dabilta kexaka beste batzuk ordea pozik algaraka.

Aralarrera goaz euroak "patuta" esklaboak bezala guztiz nekatuta aldapa gogorrean bertsoak hartuta ikurriña eskuan gogoz astinduta.



Aralarrera goaz goizean egun pasa egitera (bis) Tuturrera iritsitakoan bertsoak bertan uztera.

Eta kriskitin...

Tuturreko mendi gailurrera goaz basoan barrena (bis) brujula eta mapari adi nor iritsiko aurrena.

Eta kriskitin...

Goserik pasa nahi ez baduzu ez ahaztu bazkaria (bis) denok batera jango baitugu ikusiz trikuharria.

Udarregi ikastolako DBH 2.go ikasleek asmatutako bertso eta koplak sorta. Laguntzaile izan ditugu Goñiko Teodosio, Mikel Deuna, Putterriko dama, jentilak, artzainak... Mila esker, bihotzez, denoi.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Oxitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Telf: 943 36 04 66

Haur jantziak
Beherapenak!

Pauma

Kale Nagusia, 10 Telf: 943 365 943

ERRAZ IN
Igeltzer tza
r rra

K | N | U | S | I
T | F | 3 | 3 | 2 | 7 | 1 | 3 | S | I | 2 | 5
S | n | t | u | M | 2 | 2 | 5 | 5

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 43
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

LOLI
LIZARRALDE ileapaindegi mixtoa

Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.

Solarium-a, estetika, depilazioa manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilajea.

Zubimuntza, 5b Telf: 943 36 19 71

NOAUA!ko LEHIAKETA!!



Parte hartzen duten guztien artean
2 musika cd hauek zozketatuko ditugu.
ANIMATU eta PARTE HARTU!!

**Ze izen du Txokoalden azaroaren
12an su hartu zuen baserriak?**

- 1) ILLUNBE
- 2) IRUINDEGI
- 3) BEKOERROTA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **ABENDUAK 10**

Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170
Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkarteko buzoian edo
e-posta: erredakzioa@noaua.com

193. lehiaketako galdera
ez du inork asmatu eta beraz
sari hau beste baterako utzi
beharko dugu.



Luma, hitzekin dibertitzeko aldizkaria

Luma, hitzekin dibertitu eta ikas-
teko euskarazko denborapasen
hilabetekaria da. 2002ko urtarriletik
plazaratzen da eta Argia astekaria kale-
ratzen duen Komunikazio Biziagoa da
argitaratzailea. Honakoan, NOAUA!
ko irakurleoi Luma aldizkariaren ale
bat doan jasotzeko aukera eskaini nahi
digute.

Bi asmo ditu aldizkariak, jokoan
bidez dibertitu eta ikastea. Aisialdiaz
denborapasekin gozatzeaz gainera, gure
ingurunearen, kulturaren, literaturaren
eta abarren ezagutza orokorra jasotzeko
edukiak lantzen dituen aldizkaria da
beraz.

Lumarekin batera banatzen da hilero
Lum@txo, haur zein gatzetxoentzako
gehigarria eta saltokietan zein harpide-


tza bidez eskuratu daiteke 30 euroren
truker, kalean baino 6 euro merkeago.

Aldizkaria ezagutzera emate aldera,
Luma promozio kanpaina egiten ari da
eta NOAUA! aldizkariaren irakurleoi
aldizkariaren ale bat doan jasotzeko
aukera eskaini nahi digute.

Aldizkariarekin batera jaso duzun
postalean datuak bete eta bidaltzea
baino ez da egin behar, eta berehala
jasoko dituzu etxean, euskarazko hitz-
gurutzatuak, letra zopak, lojika jokoak,
hitz gezidunak eta abar biltzen dituen
aldizkaria.

Gainera, postalean dagoen hitz gezi-
dunarekin froga egin eta hitz guztiak
asmatuz gero, bi lagunentzako asteburu
baten zozketan hartuko duzu parte.

Luma, hitzekin dibertitu eta ikasteko
aukera eskaintzen duen aldizkaria.



HARPIDE EGITEN BAZARA, KIOSKOAN
BAINO MERKEAGO ATERAKO ZAIZU.

Agenda !

Abenduak 8, asteazkena

- Usurbilgo Odol Emaileen Eguna. Meza eta ondoren bazkaria Atxega Jatetxean.

Abenduak 9, osteguna

- Lau t'erdiko Pilota Txapelketan izena emateko azken eguna. Aitzaga Tabernan bertan eman behar da izena.

Abenduak 10, ostirala

- 19:00etan, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburuaren aurkezpena.

Abenduak 15-19

- Andatza Kultur Kirol Elkarteak antolatu duen Mendi Astea.

Abenduak 19, igandea

- Santo Tomas Eguna Usurbilen.

Abenduak 19, igandea

- Pirritx eta Porrotx pailazoan "Patata, patata!" ikuskizuna Oiardo Kiroldegian. Bi saio: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak: aldez aurretik, 4 euro. Egun berean, 5,50 euro (12 hilabete arteko haurrak doan). Sarrerak salgai Bordatxon, Mahukan eta Kiroldegian. Antolatzailea: Argjaren Adiskideak Usurbilgo Taldea.

Goardiako farmaziak

Abenduak 3, ostirala

E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16 Andoain

Abenduak 4, larunbata

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
/ Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Abenduak 5, igandea

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Abenduak 6, astelehena

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Zatarain Elizondo 6 Andoain

Abenduak 7, asteartea

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Elizondo, Zumea 20 Andoain

Abenduak 8, asteazkena

E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 9, osteguna

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

Abenduak 10, ostirala

E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
G: Ansa, Ondarreta 8 Andoain

Abenduak 11, larunbata

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

/ Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
G: Correa, Perkaiztegi 8 Hernani

Abenduak 12, igandea

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Correa, Perkaiztegi 8 Hernani

Abenduak 13, astelehena

E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 14, asteartea

E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 15, asteazkena

E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 16, osteguna

E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Gorospe R.Arregi 12 Andoain

Abenduak 17, ostirala

E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 18, larunbata

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
/ Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Abenduak 19, igandea

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

E: Egunez G: Gaeuz E/G: Egunez eta gaeuz

2004ko egutegi osoa noaia.com helbidean

KzGunea abenduan

OINARRIZKO INTERNET (20 ORDU)

-Abenduak 9-22, arratsez: 16:00- 18:00.

-Abenduak 13-27, arratsez: 18:00-20:00.

MINTEGIAK

- **Postal bat bidali**, Abenduak 28, asteartea, arratsez: 16:00-18:00 (euskaraz).

- **Iberdrola**, Abenduak 29, asteazkena: 18:00-20:00 (gaztelaniaz)

- **Etiket eros ezazu**, Abenduak 30, osteguna, arratsez: 16:00-18:00 (euskaraz).

AZTERKETAK

IT Txartela, Abenduak 23, osteguna, arratsez, 16:00-18:00.



Abenduaren 9an,

organo kontzertua elizan

Abenduaren 9an, osteguna, organo kontzertu bat eskainiko du Oscar Candedo Zabalak. Usurbilgo Elizak jasoko du emanaldia, iluntzeko 20:00etan.

Frantziar organo erromantikokoan oinarrituko da Candedoren errepertorioa. Guilman, Franck, Saint-Saëns eta Vierne konpositoreen obrak entzungo ditugu abenduaren 9ko kontzertua.

Oscar Candedo Zabalak 33 urte ditu eta gaur egun Catalunya Goi Musika Eskolako organo irakaslea da.

Jaialdi honek Usurbilgo Udala, Parrokia eta Foru Aldundiaren babesa jaso du.

Haur Eskola sukaldari posturako

lan-poltsa osatzen ari da

Beharrezkoa da:

-“Elikagaien manipulazioa” karneta izatea.

-Euskalduna izatea.

-Esperientzia izatea sukaldaritza alorrean.

Baloratuko da:

-Usurbildarra izatea.

-Elikadura mota ezberdinen inguruko ezagupena izatea (konbentzionala, makrobiotikoa...).

-Haurrak gustoko izatea.

Interesatuak bidali curriculum-vitae: Usurbilgo Haur Eskola, Kalezar, Sakabanatuak 15, 20.170 Usurbil. (Abenduaren 27a baino lehen).

LATAILLADE
ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

Aritzitxo Kalea, 6
Behera

Tel: 943 363 348

Mugikorra: 689 888 821



MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etz st k l , 3
T E : 3 3 1 1

Oharrak !

ERREBIZITZA

- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf. 677 082 305.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364 469.
- Alokairuan konpartitzeko pisua edo gela hartu nahi dut. 647 97 38 44 (Lourdes).
- Pisu bat alokatuko nuke. Premiazkoa da. 661267503.
- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. TLF.: 645722874

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. Interesatuak deitu 600901150 telefonora.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusia (Bizkarreko etxetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Kotxe bat salgai daukagu 600 eurotan. Interesatuak edozein ordutan deitu 635729637 telefonora.
- Garaje bat alokairuan uzteko prest nago, bi marra-duna. Bizkarren, 50 euro hileko. 687 40 62 09.
- Aparkalekuak dauzkat salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. Interesatuak deitu 607905859 (Imanol).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko: 619 844 556.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Neska euskaldun bat behar dugu, arratsaldez umeak ikastolatik jaso eta 3-4 orduz zaintzeko. Gida baime-na izatea baloratuko da. 639 670 999 / 667 592 679.

Lan-eskaintzak

- Emakume bat behar dugu etxeko lanetarako. Tlf.: 650947142. (Gauzez:) 943360096.
- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Pertsona bat behar da 6 urteko haur bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko (plantxa, jana). Astelehenetik ostiralera 16:30tik 19:30ra. 686932720.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Pottoka salgai. 8 hilabeteko zaldikoa, beltza, bertako arrazakoa. Bazterrak garbitzeko aproposa. Tf. 943 65 0619 (arratsaldez 17:00-20:00).
- Gabonetarako haurren etxetxoak salgai! Kolorezko plastiko oso gogorrez eginiko etxea (120 X 120

- cm). 2 leiho, ate bat, mahaitxoa eta telefonoa. Egoera onean. 75 euro. Tf. 627 271215.
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gauzez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Poltsa bat galdu dut herrian. Topatu baduzu deitu 637 046 389 telefonora.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762.

HILDAKOAK

- **Pako Alvarez Martinez**
Azaroaren 19an hil zen 79 urte zituela, Aginaga.



Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Sofia!
Abenduak 15ean urtebete egingo dezu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez eta ea denak ondo pasatzen degun zure lehenengo urtebetetze honetan.



Zorionak Irati!
Abenduaren 4an, laugarren urtebetetzea izango da. Zorionak eta ondo pasa. Muxu handi bat etxekoan partez.



Aupa Txapeldunak!
Lukenek azaroak 3an eta Herrik azaroaren 27 urteak egin zenituzten. Berandu baina ez gara ahaztu. Zorionak eta muxuak familiaren partez.



Zorionak bioi!
Patxik, aitak, abenduaren 6an egingo ditu urteak. Eiderrek, alabak, abenduaren 8an. Zorionak bioi eta ondo pasa! Amatxoren partez.



Zorionak Mikel!
Abenduak 4an 4 urte!! Muxu beroa Aitaxo ta Amatxo, Fredi eta familiaren partez. Ondo pasa zure eguna maitia.



Zorionak prexioxa!
Denok elkarrekin ospatuko dugulakokan, jaso ezazu muxu eta besarkada handi bat etxekoan partez.



Zorionak Xabat!!
Azaroak 30ean egin zenituen 4 urte, ez pentsa ahaztu genuenik. Zorionak eta muxu handi bat. Zorionak!



Zorionak Joana eta Iñaki!!
Joanak abenduaren 10ean 10 urte egingo ditu eta Iñakik abenduaren 9an 7 urte. Lehengusu eta senide guztien partez, ondo pasa eta ea opari asko izaten dituzuen.



Zorionak Alazne eta Nikolas!
Azaroaren 11an 5 urte bete zituen Alaznek. Nikolasek, berriz, 82 urte bete zituen azaroak 23an. Zorionak etxekoan partez!!



Zorionak Gaizka!!
Abenduaren 3an bost urte egingo dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez. Ondo pasa!!



H n k n U z n n , s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K I N U S , 2 I C 2 I I
Tlf 3 3 7 7 USU IL

Urteinea

L r k - L r l n r k
L r s r l k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JU NTX

ur n
k l n u s l U s u r l
S I

IGELTSE ITZ

t
INTU

9 4 3 3 7 7 9 4 3 3 7 7
2 1 3 6 3 7 3

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Euskarazko liburuak, diskoak, mahai jolasak... denak katalogo batean bilduak

Euskaraz produktu asko argitaratzen da urtero-urtero, eta horiek biltzen dituen katalogoa ere gero eta famatuagoa egiten ari da. 2004-05 urteko Euskarazko Produktuen Katalogoa kalean izango da datozen egunetan eta urtero bezala bertan datoz merkatuan salgai dauden euskarazko produktuak. Haur eta gaztetxoentzat argitaratzen diren liburu, jostailu, disko, pelikula eta abar biltzen ditu katalogoak eta Euskal Herrian 220.000 ale banatuko dira, Buruntzaldean 8.400 eta Usurbilen 800. Aurten laugarren urtea da Buruntzaldeko herrietan katalogoa kaleratzen dela eta hasierako helburu berak mantentzen ditu.



EUSKARAZ JOSTATZEKO AUKERA UGARI ESKAINTZEN DITU KATALOGOAK.

Aisialdia euskaraz

Euskarazko produktuen katalogoa argitaratuta bultzatzaileek lau helburu lortu nahi dituzte:

1) Gurasoei ikustaraztea euskaraz eskolatzarekin bakarrik ez dela ziurtatzen haurra euskaldun osoa eta euskal kulturaren errotua hezitzea, eta honi laguntzen ahal dioten beste alderdi eta euskarri batzuk ere kontuan hartu behar direla, aisialdiko jarduerak euskaraz egitea esaterako.

2) Gurasoei ikustaraztea aukera handiak daudela haurrari euskal heziketa emateko, nahiz eta haiek euskaraz ez jakin.

3) Haur eta gaztetxoei aisialdiko euskarazko produktuen eskaintza ezagutzera ematea.

4) Produktu hauen gainean izan litekeen eskaera ugaltzea, euskarazko zerbitzu eta produktuen merkatua dinamizatzu eta indartzu.

Era guztietako produktuak

Katalogoak dakartzan produktuak haur eta gazteentzat dira, 16 urte bitartekoentzat. Musika, literatura, informatika, jolasak, zinea eta abar daude katalogoan gaika sailkatuta, eta produktu bakoitzaren izena, argitaletxea, eta gutxi

gora-beherako prezioa ematen ditu; eta batzuetan, baita zein adinetarako egokia den ere. Katalogoa prestatuta dago, bai gazteek eta bai gurasoek interesa izango dutela pentsatuta eta horregatik badira helduei zuzendutako zenbait produktu ere: haur txikiei kontatzeko ipuinak, haurrekin jostatzeko kantuen bildumak, edo kontsultarako materiala (hiztegiak, entziklopediak, etab.).

Aipatzekoa da, baita ere, katalogoan zein produktu sartu erabakitzeko egindako lana. Antolatzaileek ez diote begiratu euskarazko produktu izateari bakarrik. Horregatik katalogoan aurkituko ditugu merkatuan dauden euskarazko produktu txukun eta interesgarrienak.

Eskaera eta oihartzun gero eta handiagoa

Euskarazko Produktuen Katalogoa lehenengo aldiz atera zenetik, eskaera nabarmen igo da Euskal Herrian. Interesa gero eta handiagoa da, bai gurasoen aldetik, bai gazteen aldetik baita euskal produktuak argitaratzen dituzten etxeen aldetik ere. Guztira 113 herritan banatzen da katalogoa eta 220.000 ale kaleratzen dira.

Non eskuratu Katalogoa

Katalogoa eskuratzeko modu bat baino gehiago daude. Herri batzutan etxera bidaliko zaie katalogoa 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei. Beste herri batzuetan, berriz, haurrei eskura emango zaie katalogoa, ikastetxeen bidez, adibidez. Beraz, modu batera edo bestera, Udalek bideak jarri dituzte 16 urte bitarteko haur edo gaztetxoek katalogoa eskura dezaten.

Katalogoa dagoeneko kalean da. Oraindik leku batzuetara iritsi ez bada ere, laster batean izango da proiektuari heldu dioten herrietan.

Buruntzaldean 8.400 ale

Buruntzaldeko Udaletako Euskara Zerbitzuek badaramatzate 4 urte Euskarazko Produktuen katalogoa ateratzen. 2001 urtera arte Nafarroako zenbait Udalerrian kaleratzen zen katalogoa, baina urte hartan Nafarroa eta Buruntzaldean katalogo bateratua kaleratu zuten. Orduz gero, urtero Udalgai gehiago animatu dira proiektuan parte hartzera, eta orain Diputazio eta Gobernuak ere beren babesa ematen dute.



Elhuyar

Azken Urteko Euskal Koroa

Euskal Herria Mundua!

Musika Informatika Filmak Liburuak

Aldizkariak Jostailuak eta jokoak Web helbideak

04
05

EUSKARAZ KO Produktuen KATALOGOA

Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskara Batzordeak



IGELTSEKITZA

URDANTZI

Tel.: 943 361439
Mob.: 649 435475
649 435476

ERRAZKIN IGELTSEKITZA

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

urki-mitxe@euskalnet.net

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura



Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANZAZISTROKI

Igeltseritza eta pin-

Juan Jose enea, 6

Kalezar

943 36 05 50 - 606 37

PINTURAK

RAMON BARCENI-

- Pikor pintura eta gotele lanak
- Papereztatze- lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

FERNANDO PINTURAK

✦ Enpapelaketak eta pinturak orokorrean

✦ Lurzorak jartzen dira

Tel: 943 36 60 19- 36 34 60



USURBILGO OFIZIOAK

ZURE ESKURA DITUZU

AROTZTEGIAK

BEREZIARTUA S.L.

Egurra eta egurra-
aluminiozko LEIHOAK
eta ESKAILERAK

Aginaga Telf: 943 37 15 71



JOXE MARI IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12 21

BARRENETXE

SALSAMENDI ARREGI,

Telf.: 943 362664

Faxa: 943 374002

Barren Etxe kalea, Zubieta

Telefona: 943 37 64 15

Faxa: 943 36 05 10

AROTZTEGIA

ANTONIO URRUZOLA

Astcasnain industrialdea, 3

ELEKTRIZITATEA

Tel: 943 36 50 95 Mng: 609 068 111

Elektrizitatea

IZAGUIRRE

Goiz Argi etxea, 37 Kalezar

ARGILAN

JOSE LUIS BORDA ZUGASTI

- Argiztatze eta Industria Instalazioak
Komponentak

Burdaberri, 5 behe

Tel: 943 36 13 80

Mug: 629 27 28 59

ESKAIOLAK

EUGENIO NORIEGA

PLADURREZKO LANAK
TEILATU MODULARRAK
DEKORAZIOAK

Erdiko kalea, 12
Telf: 943 36 56 65-
616 92 60 25

JOSE ANTONIO

ELORZA

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

ITURGINTZA

PORTULARRUME

- Bainuko altzariak
- Era guztietako manparak



Telf: 943 36 46 37

JAVIER ORBEGOZO

Iturgintza
Gasa



Berolantza



Atxan kalea, 1. Lehi Mug: 943 372937

Mug: 629 602789

JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 83 00 72

659 88 39 12

LATAILLADE
ITURGINTZA

Hurgintza, gasa,
berogintza klimatizazio instalakuntza
eta mantenimendua

Mugikorra: 608 88 80 21 Tel.: 943 36 33 48



Lizentziatua
Iturgintza

USURBIL

Josetxo Ikatzeta

687 95 12 25

Gida honetan azaldu nahi baduzu:
943 360 321 / publizitatea@noaua.com